

 [EU](#) | [ES](#)
 [Harpidetu](#) @ [Harremanetarako](#)

euskadi  net

- [Agenda](#)
- [Albisteak](#)
- [Sorkuntzak](#)
- [Informazio profesionala](#)
- [Kultur Baliabideen Direktoria](#)
- [Albiste guztiak](#)
- [Ikusizko arteak](#)
- [Arte eszenikoak](#)
- [musika](#)
- [Ikus-entzunezkoak](#)
- [Literatura](#)
- [Artxibategiak, Liburutegiak eta Mediatekak](#)
- [Museoak](#)
- [Ondarea](#)
- [Artisautza](#)
- [Joerak](#)
- [Arlo berriak, Diseinua, Bestelakoak](#)
- [Kultura Euskaraz](#)
- [Sormen Lantegiak](#)

[Hasiera](#) » [Albisteak](#) » Bakioko Txakolinguneak 1.500 bisitari izan ditu hiru hilab...



[Bilaketa aurreratua](#)

Bakioko Txakolinguneak 1.500 bisitari izan ditu hiru hilabetea

2014-06-16



Miren Josune Ariztondo Kulturako foru diputatuak jakinarazi ditu Txakolingunearen jarduera eta funtzionamenduari buruzko datuak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskara eta Kultura Batzordean. Txakolinaren Interpretazio Zentroa abian jarri zenetik, 1.500 pertsonak baino gehiagok bisitatu dute.

Miren Josune Ariztondok jakinarazi du 2014ko martxoaren 19an ireki zenetik hiru arlo hauetan jardun duela Txakolinguneak: bisitak hartzea, zabalkundea egitea eta jarduerak antolatu eta egitea. Abian jarri zenetik hona, 1.500 bisitari izan ditu zentroak; gehienak Uribe Kostakoak izan dira, baina baita Bizkaiko gainerako lekuetakoan ere. Txakolinaren Interpretazio Zentroaren helburua da txakolinaren kultura zabaltzea; horretarako, txakolinari lotutako hainbat kolektiborekin egin dira bilerak (Bakioko upelategiak, Jata Ondoko landa-garapenerako elkarteak eta Bakioko Txakolinaren Deituraren Kontseilu Arautzailea). Jardueren programari dagokionez, zientziari buruzko tailer bereziak eta artista lokalen erakusketak egin dira. Txakolingunean, bestalde, Bizkaiko museoen bilera egin da, bai eta Euskal Kostaldeko Museoen koordinazio-mahaiaren bilera ere.

Zentroaren kudeaketa dela eta, Miren Josune Ariztondok esan du martxoaren 19tik Bizkaiko erakundea arduratzen dela Txakolingunearen kudeaketaz, Itxas Lehor S.L. sozietatearen bitartez. Sei hilabetez izango du ardura hori, harik eta zerbitzua behin betiko adjudikatu arte (orain, zerbitzu horretarako pleguak egiten ari dira). Kulturako foru diputatuak adierazi duenez, Txakolingunean jarraitu den prozedura proiektu sortu berrietan erabiltzen den prozedura bera da, proiektu horietan beharrekoa baita errealitatean saioak egitea eta kontratazio-pleguak zehaztea; antzera egin da beste proiektu batzuetan: Santimamiñe, Sopela eta Barakaldon. Ariztondok gaineratu du antzeko egoera batzuetan esperimentazio-aldiak balio izan duela behin betiko adjudikaziorako pleguaren baldintza teknikoak, giza baliabideak eta baldintza ekonomikoak zehazteko.

Edukiak partekatu:



Iturria: bizkaia.net

Lizentzia: [Copyright](#)

Kategoriak:

[Museoak](#)

Etiketak:

[balantzeak](#), [bizkaia.net](#), [bizkaiko foru aldundia](#), [eragileak_museoak](#), [txakolingunea](#)

Iruzkinak egin

[RSS 2.0 Feed](#)-en bidez, sarrera honek izandako edozein erantzunen jarraipena egin dezakezu. [Trackback](#) edo [erantzun](#) bat utz dezakezu.


Iruzkina

Izena(*)

E-posta (ez da argitaratuko) (*)

Webgunea

Bidali



Informazio profesionala

- [Diru-laguntzak](#)
- [Kultura kudeaketa](#)
- [Argitalpenak](#)
- [Programak](#)
- [Txostenak](#)
- [Estatistikak](#)
- [Legeria](#)

Kulturkliki buruz

- [Laguntza](#)
- [Gune honetan...](#)
- [Dekalogo](#)
- [Kulturklik buletinen bilduma](#)
- [Kulturkaria buletinen bilduma](#)
- [Harremanetarako](#)
- [Web mapa](#)

Harpidetzak

- [Asteko Kulturklik buletina](#)
- [Hilabeteko Kulturkaria buletina](#)
- [Zure neurrira egindako buletinak](#)
- [RSS Agenda](#)
- [RSS Albisteak](#)
- [RSS Sorkuntzak](#)
- [RSS Informazio Profesionala](#)
- [RSS Iruzkina](#)



kultur
Wordpress-i esker